XEDAPEN OROKORRAK

SEGURTASUN SAILA

1958

AGINDUA, 2014ko apirilaren 16koa, Segurtasuneko sailburuarena, Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Ikastegia erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzen dituen Herrizaingoko sailburuaren 2003ko irailaren 2ko Agindua zazpigarrenez aldatzeko dena.

Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20.1 artikuluak hauxe xedatzen du: Estatuko Buletin Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako xedapen orokor baten bidez bakarrik sortu, aldatu edo kendu ahal izango dira Administrazio Publikoetako fitxategiak.

Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruz otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 4. artikuluak xedatzen duenez, fitxategiaren ardura duen saileko titularraren agindu bidez sortu, aldatu eta ezabatu beharko dira Autonomia Erkidegoko Administrazioko fitxategiak. Eta agindu horrek indarreko araudietan aginduta dagoen guztia aipatu beharko du, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Herrizaingoko sailburuaren 2003ko irailaren 2ko Aginduaren bidez (2003ko irailaren 2ko EHAA, 170. zk.; hutsen zuzenketa, 2003ko urriaren 10eko EHAA, 198. zk.), Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautu ziren.

Agindu hori Herrizaingoko sailburuaren 2007ko apirilaren 2ko Aginduaren bidez aldatu zen (2007ko maiatzaren 7ko EHAA), zeina Herrizaingoko sailburuaren 2007ko ekainaren 7ko Aginduak aldatu baitzuen (2007ko ekainaren 29an EHAA). Halaber, Herrizaingoko sailburuaren 2008ko apirilaren 7ko Aginduaren (2008ko apirilaren 22ko EHAA) eta 2008ko azaroren 7ko Aginduaren (2008ko abenduaren 5eko EHAA) bidez sortu dira Herrizaingo Sailaren eta hari atxikitako Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia erakunde autonomoaren datu pertsonalen fitxategi automatizatu berriak. Arau honi egindako azken aldaketak honako agindu hauetan jasota daude: Herrizaingoko sailburuaren 2010eko abenduaren 20ko Agindua (2010eko abenduaren 24ko EHAA); Herrizaingoko sailburuaren 2012ko martxoaren 9ko Agindua; 2012ko irailaren 20ko Agindua, Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Ikastegia erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzen dituen Herrizaingoko sailburuaren 2003ko irailaren 2ko Agindua bosgarrenez aldatzekoa dena (2012ko martxoaren 30eko EHAA); Segurtasuneko sailburuaren 2013ko martxoaren 5eko Agindua, Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Ikastegia erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzen dituen Herrizaingoko sailburuaren 2003ko irailaren 2ko Agindua seigarrenez aldatzekoa dena (2013ko martxoaren 20ko EHAA).

Arau horiek argitaratu ondoren, fitxategi berri bat sortu behar da, ikusmen-desgaitasuna duten eta Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan boto irisgarria darabilten hautesleen datuak biltzeko.

Bestalde, Datuak Lantzeko Zentroan fitxategi bat eratu behar da prozeduren izapidetzeari buruzko datuak biltzeko.

Era berean, lan-kontratuko langileen kudeaketan, bi fitxategi berri sortu behar dira, aplikazio informatiko berriei egokitzeko asmoz.

Gainera, zenbait fitxategi aldatu behar dira DNAren fitxategiak erregulatzeko indarrean den legeriari egokitzeko. Aldatu behar da, orobat, udaltzainen erregistro-fitxategia, bitarteko agenteen poltsa eraginkortasunez kudeatu ahal izateko.

Aldatu behar da, halaber, 26. fitxategia (lan-kontratuko langileen kudeaketa integratua, GGBB), aplikazio informatika berriei egokitzeko.

Bestalde, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuak egitura berri bat ezarri du bere organoetan. Hori dela eta, II. eranskina aldatu beharra dago, aurkibidea egungo egiturari egokituz.

Horregatik, eta argitasuna eta legezko segurtasuna lortzeko, beste xedapen bat argitaratuko da, ordura arte indarrean daudenak osatzen dituena.

Hori dela eta, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Datu pertsonalen gaineko fitxategi gehiago sortzea, agindu honen I. eranskinean zerrendatuko direnak.

2. artikulua.– Segurtasun Sailaren fitxategi-zerrendatik honako fitxategi hauek kentzea, erabiltzen ez direlako: 46.a (Telefono-abonatuak); 20.a (Harpidedunak) eta 23. fitxategia (Curriculuma). Ezabatu egiten dira tratamendurako erabiltzen diren fitxategi logikoak.

3. artikulua.– 26. fitxategia (Nekroidentifikazioa) eta 56. fitxategia (DNA) 23. fitxategian (Identifikazio genetikorako datu-basea) sartzea, DNAtik abiatuta lortutako identifikatzaileei buruzko poliziaren datu-baseen arloan indarrean dauden arauei egokitzeko.

4. artikulua.– II. eranskinean, zerrendatzen diren fitxategiak aldatzea.

5. artikulua.– III. eranskinean argitaratzea Segurtasun Sailak eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Ikastegia erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuen aurkibide berria.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Segurtasun Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzak Datuak Babesteko Euskal Bulegoko Erregistroari jakinaraziko dio fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatu izana, eta aipatu erregistroan inskribatzea edo inskripzioa aldatzea eskatuko du.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 16a.

Segurtasuneko sailburua,
ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRONIZ.

I. ERANSKINA

FITXATEGI BERRIAK SORTZEA

I. eranskina.– Segurtasun Sailaren eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Ikastegia erakunde autonomoaren administrazio-fitxategiak.

III.– Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren menpeko zuzendaritzen erantzukizuna:

B) Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza.

58.– Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetarako boto irisgarria:

Helburua:

Ikusmen-urritasuna aitortuta duten hautesleei erraztasunak ematea, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan boto irisgarria erabiltzeko.

Erabilerak:

«Helburua» atalekoak.

Zein pertsona edo gizatalderi buruzko datu pertsonalak bildu nahi diren:

Braille sistema ezagutzen duten eta ikusmenaren % 33ko minusbaliotasun-maila edo handiagoa onartuta daukaten hautesleak edo Espainiako Itsuen Antolakunde Nazionaleko kideak izanik Braille botoa erabili nahi dutenak.

Datu pertsonalak biltzeko prozedura:

Telefono bidez, hautesleak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak jarritako doako telefono batera deituta.

Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Datu pertsonalak: izena eta bi deitura, NANa, telefonoa eta posta-helbidea.

Pertsonen osasunarekin loturiko datuak, bereziki babestuak. Ikusmenaren % 33ko minusbaliotasun-maila edo handiagoa.

Ezaugarri pertsonalak: Braille sistemaren ezagutza-adierazpena edo Espainiako Itsuen Antolakunde Nazionalarekiko afiliazioa.

Aurreikusten diren datu-lagapenak eta transferentziak:

Estatistikako Institutu Nazionalari (Hautesle Erroldaren Bulegoa) eta Hautes Administrazioari egindakoak.

Segurtasun-maila: oinarrizkoa.

Organo arduraduna:

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta horien aurka egiteko eskubideaz baliatzeko organo honetara joko da:

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza, Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz.

C) Giza Baliabideen Zuzendaritza.

59.– Langileen kudeatze integratua – Giza baliabideak I.

Helburua:

Giza Baliabideen Zuzendaritzari atxikitako langileen kudeatzea.

Erabilerak:

- Giza baliabideen kudeatzea.
- Nominak, gizarte-aseguruak eta atxikipenak ordaintzea eta beren kontabilizazioa egitea.
- Gizarte-mozkinak kudeatzea, osasun-arrazoiengatik emandakoak salbu.
- Zehapen-prozedurak kudeatzea.
- Lanpostuak betetzeko prozesuak.
- Langileen ordutegi-kontrola, eta eraikinetan sartzekoa, sarrera- eta fitxatze-txartelak eta bestelako lan-gorabeherak kudeatzea.
- Langileen prestakuntza kudeatzea.
- Barneko estatistikak eta publikoak.
- Langileen erregimenaren ohiko kudeaketarekin loturiko beste edozein prozedura.

Zein pertsona edo gizatalderi buruzko datu pertsonalak bildu nahi diren:

Giza Baliabideen Zuzendaritzak kudeatutako langile lan-kontratudunak.

Datu pertsonalak biltzeko prozedura.

Afektatuak berak emandako dokumentuen bidez, eta Administrazioak sortutako dokumentuen eta fitxategi honen helburuarekin eta erabilerekin loturiko beste fitxategi batzuetatik datozen lagapenen bidez.

Fitxategiaren oinarrizko egitura eta horretan jasotako datu pertsonalak deskribatzea:

Identifikazio-datuak: izena, deiturak, NANa, erregistroko langile-zenbakia, helbidea, telefonoa, Gizarte Segurantzako/Mutualitateko zenbakia, argazkia, sinadura digitala.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: egoera zibila, sexua, jaioteguna, nazionalitatea, seme-alabak.

Datu profesionalak: administrazio-egoera, kategoria, kargua, destinoa, egitura-kodeak, maila, nominaren datu ez-ekonomikoak, arau-hausteak eta administrazio-zehapenak.

Datu akademikoak: titulazio akademikoak, ikastaroak, hizkuntza, profilak, esperientzia profesionala, aurkeztutako merezimenduak.

Presentzia-kontrolaren datuak: sarrerako eta irteerako eguna/ordua, lanera ez joateko arrazoiak.

Ekonomia eta finantzetako datuak: diru-sarrerak edo errentak, kredituak, maileguak, abalak, subsidioak, gizarte-mozkinak, zergak, zerga-dedukzioak, banku-datuak, nomina-datuak, jubilazio-datuak.

Transakzioei buruzko datuak: konpentsazioak, gastuen kalte-ordainak.

PFEZaren atxikipenaren ondorioetarako minusbaliotasun-gradua eta nominaren ordainketa.

Sindikatuei kuotak ordaintzeko sindikatu-afiliazioa.

Aurreikusten diren lagapenak eta transferentziak:

Arlo horretan eskumena duten instituzio eta erakundeei, Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 11. eta 21. artikuluekin bat etorriz. Batez ere, hauek: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala, banku-erakundeak eta langileen kudeaketarekin loturiko beste erakunde batzuk.

Segurtasun-maila:

Ertaina. Datuak Babesteko Lege Organikoaren Erregelamenduaren 81.5.a) eta 81.6 artikuluekin bat etorriz.

Organo arduraduna:

Giza Baliabideen Zuzendaritza.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta horien aurka egiteko eskubideaz baliatzeko organo honetara joko da:

Giza Baliabideen Zuzendaritza (Larrauri Mendotxe bidea 18, 48950 Erandio, Bizkaia).

60.– Langileen kudeatze integratua – Giza baliabideak II.

Helburua:

Giza Baliabideen Zuzendaritzari atxikitako lan-kontratuko langileen datuak, bereziki babestuak, kudeatzea.

Erabilerak:

- Giza baliabideen kudeaketatik eratorritako egintzak eta prozedurak (bereziki babestuta dauden datuak tratatzen dituztenak) kudeatzea.
- Bereziki babestutako datuekin loturiko ez-agertzeak kudeatzea.
- Sindikatu-ordezkaritzarekin loturiko baimenak kudeatzea.
- Langileek eskatutako eta Administrazioak emandako osasun-arrazoiengatiko gizarte-mozkinak kudeatzea.
- Osasun arrazoiengatik baliabideak egokitzea, lanpostuak betetzeko prozesuetan.
- Barneko estatistikak eta publikoak, bereziki babestutako datuak tratatzen dituztenak.
- Langile-erregimenaren ohiko kudeaketarekin loturiko beste edozein, datuak bereziki babestuak direnean.

Zein pertsona edo gizatalderi buruzko datu pertsonalak bildu nahi diren:

Giza Baliabideen Zuzendaritzak kudeatutako langile lan-kontratudunak.

Datu pertsonalak biltzeko prozedura.

Afektatuak berak emandako dokumentuen bidez, eta Administrazioak sortutako dokumentuen eta fitxategi honen helburuarekin eta erabilerekin loturiko beste fitxategi batzuetatik datozen lagapenen bidez.

Fitxategiaren oinarrizko egitura eta horretan jasotako datu pertsonalak deskribatzea:

Identifikazio-datuak: izena, deiturak, NANa, erregistroko langile-zenbakia, helbidea, telefonoa, Gizarte Segurantzako/Mutualitateko zenbakia, argazkia, sinadura digitala.

Bereziki babestutako datuak: osasunari buruzkoa, sindikatu-afiliazioari buruzkoa, eta genero-indarkeriaren egintzetatik eratorritako datuak.

Aurreikusten diren lagapenak eta transferentziak:

Arlo horretan eskumena duten instituzio eta erakundeei, Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 11. eta 21. artikuluekin bat etorriz. Batez ere, hauek: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala, banku-erakundeak eta langileen kudeaketarekin loturiko beste erakunde batzuk.

Segurtasun-maila: handia.

Organo arduraduna:

Giza Baliabideen Zuzendaritza.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta horien aurka egiteko eskubideaz baliatzeko organo honetara joko da:

Giza Baliabideen Zuzendaritza (Larrauri Mendotxe bidea 18, 48950 Erandio, Bizkaia).

II. eranskina.– Euskal Herriko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroaren menpeko fitxategiak

58.– Datuak eta prozedurak kudeatzea

Helburua:

Polizia-jarduerarekin loturiko jarduerengatik edo eskariengatik sortutako izapideak eta prozedurak kudeatzea, baldin eta Segurtasun Sailburuordearen eskumenak badira, eta zehatzago, Idazkaritza Nagusiarenak.

Aurreikusitako erabilerak:

Administrazio-prozedurak izapidetzea.

Administrazio-helburudun jarduerak eta poliziaren ekintza.

Barruko estatistiken kudeaketa.

Zein pertsona edo gizatalderi buruzko datu pertsonalak bildu nahi diren:

Egindako eskariekin loturiko pertsonak edo prozeduren izapidetzearekin loturikoak.

Biltzeko prozedura eta jatorria:

Interesdunak eta/edo arloko beste erakunde eskudun batzuek emandako datuak; hori guztia inprimakiak erabiliz, datuak elektronikoki zabalduz, edozein euskarri erabilita.

Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Gai honi buruzko informazioa izan dezaketen datu-baseak:

Identifikazio-datuak: NANa, izena eta deiturak, posta-helbidea eta telefonoa, bai eta lanbidea ere (poliziarentzat).

Poliziarentzako lan-xehetasunei buruzko datuak. Lanpostua, kidegoa eta eskala, kategoria eta gradua.

Administrazio arau-hausteei eta/edo penalei buruzko datuak eta polizia-jarduerei buruzko datuak.

Aurreikusten diren datu-lagapenak eta transferentziak:

Arlo horretan eskumena duten instituzio eta erakundeei, Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 11. eta 21. artikuluekin bat etorriz.

Segurtasun-maila: handia.

Fitxategiaren arduradun den organoa:

Segurtasun Sailburuordetza (Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza-Euskal Herriko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroa).

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta horien aurka egiteko eskubideaz baliatzeko organo honetara joko da:

Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza (Larrauri Mendotxe bidea 18, 48950 Erandio, Bizkaia).

II. ERANSKINA

I. eranskinaren fitxategi batzuen aldaketa (I. eranskina: Segurtasun Sailaren eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Ikastegia erakunde autonomoaren administrazio-fitxategiak).

I.– Segurtasun Sailburuordetzaren menpeko zuzendaritzen erantzukizuna:

E) Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

56.– Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzainen Erregistroa.

Helburua:

Euskadiko udaltzaingoak koordinatzea, eta Tokiko Poliziaren bitarteko udaltzainen lan-poltsa kudeatzea.

Aurreikusitako erabilerak:

Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzainak koordinatzea.

Lanbide-egiaztapenak egitea.

Udaltzainen eta ertzainen informatika-sareak eta sistemak elkarrekin konpartitzea.

Tokiko Poliziaren bitarteko udaltzainen lan-poltsa kudeatu eta eguneratzea.

Estatistikak kudeatzea.

Zein pertsona edo gizatalderi buruzko datu pertsonalak bildu nahi diren:

Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzainen kidegoetako langileak, bai eta zaintzaileak, jagoleak, alguazilak eta horren antzeko direnak ere, uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 117.1 artikuluan jasotako funtzioak egiten dituztenak alegia. Hirigunean zirkulazioa antolatu, seinaleztatu eta zuzentzeaz arduratzen diren funtzionarioak. Tokiko Poliziaren bitarteko udaltzainen lan-poltsa osatzen duten langileak.

Biltzeko prozedura eta jatorria:

Udaltzaingoko burutzak edo Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak emango du informazioa, edo interesdunak aurkeztutako dokumentazioaz baliaturik.

Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Bi datu base beregain. Bata Euskadiko Udaltzainen Erregistroari aplikatu beharreko erregimena betetzeko da, eta bestea, ordea, polizien kidegoak koordinatzea eta bitarteko Tokiko Poliziaren bitarteko udaltzainen poltsa kudeatzea.

Identifikazio-datuak: izena, abizenak, nortasun-agiri nazionalaren zenbakia.

Datu pertsonalak: sexua, jaioteguna.

Datu-profesionalak: jagoleen edo antzekoen kasuan, egungo lanbide-zenbakia edo langileen erregistroko zenbakia. Lanbide-kategoria. Ikasketa-tituluak. Agente bakoitzaren gidabaimenak. Egoera administratiboa.

Aurreikusten diren datu-lagapenak eta transferentziak:

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 11. eta 21. artikuluen arabera sortzen direnak.

Segurtasun-maila: handia.

Fitxategiaren arduradun den organoa:

Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta horien aurka egiteko eskubideaz baliatzeko organo honetara joko da: Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza (Larrauri Mendotxe bidea 18, 48950 Erandio, Bizkaia).

II.– Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren menpeko zuzendaritzen erantzukizuna.

B) Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza.

8.– Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskunde-kontsultak.

Helburua:

Hauteskundeetako emaitza ofizialei buruzko eta Euskal Autonomia Erkidegoan 1977az geroztik egindako kontsultetan hautatuko pertsonei buruzko informazioa kudeatzea.

Aurreikusitako erabilerak:

Kontsultak, azterlanak eta analisiak.

Zein pertsona edo gizatalderi buruzko datu pertsonalak bildu nahi diren:

Hauteskunde bakoitzean (Eusko Legebiltzarra, Udaletarako Hauteskundeak, Batzar Nagusietarakoak, Europako Hauteskundeak eta Hauteskunde Orokorrak) hautatutako pertsonak.

Biltzeko prozedura eta jatorria:

Informazioa leku hauetatik hartzen da: Estatuko Aldizkari Ofiziala, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, Lurralde Historikoetako aldizkari ofizialak eta Hauteskunde Batzordeen aldarrikatze-aktak.

Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak (izena eta bi deitura).

Hautagaitzaren datuak (izena eta siglak).

Hauteskundeari buruzko datuak.

Hautes-barrutiari buruzko datuak.

Aurreikusten diren datu-lagapenak eta transferentziak:

euskadi.net eta elecciones.net webguneetan sartzen diren pertsonei

Segurtasun-maila: handia.

Organo arduraduna:

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta horien aurka egiteko eskubideaz baliatzeko organo honetara joko da:

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza, Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz.

C) Giza Baliabideen Zuzendaritza.

26.– Langileen kudeatze integratua – Giza baliabideak.

Helburua:

Segurtasun Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzak kudeatutako funtzionarioen administrazio-bizitzari eragiten dioten egintzak erregistratu eta kudeatzea, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuan xedatutakoari jarraikiz.

Erabilerak:

- Segurtasun Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzak kudeatutako funtzionarioei eragiten dieten prozeduren jarraipena eta kontrola erraztea, eta Langileen Erregistroa osatuko duten espediente pertsonalekin loturiko datuak eta dokumentuak artxibatzen laguntzea ere.
- Nominak, gizarte-aseguruak, lanerako ezintasun iragankorrak eta atxikipenak ordaintzea eta beren kontabilizazioa egitea.
- Langileek eskatutako eta Administrazioak emandako kontsumoko maileguak kudeatzea.
- Hutsik geratu diren lanpostuak betetzeko merezimendu-lehiaketetan eskainitako postuetara aurkeztutako hautagaitzak erregistratu, hautatu, esleitu eta ebaztea, bai eta zerbitzu-eginkizunak eman eta baliogabetzea ere.
- Lan-ordutegia, lanpostuan eman beharreko denbora eta bestelako lan-gorabeherak zaintzea, bai eta prestakuntza-ikastaroen eta hizkuntza-ikastaroen jarraipena egitea ere.
- Barneko estatistikak eta publikoak.
- Langileen erregimenaren ohiko kudeaketarekin loturiko beste edozein prozedura.

Zein pertsona edo gizatalderi buruzko datu pertsonalak bildu nahi diren:

Segurtasun Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzak kudeatutako funtzionarioak.

Datu pertsonalak biltzeko prozedura:

Afektatuak berak emandako dokumentuen bidez, eta Administrazioak sortutako dokumentuen eta fitxategi honen helburuarekin eta erabilerekin loturiko beste fitxategi batzuetatik datozen lagapenen bidez.

Fitxategiaren oinarrizko egitura eta horretan jasotako datu pertsonalak deskribatzea:

Datu-base bat, honako datu hauek bilduko dituena: datu pertsonalak, administrazio-datuak, ekonomikoak, banku-datuak, eskatutako maileguak, aurkeztutako merezimenduak eta ordutegi-kontroleko datuak.

Fitxategi horrek bereziki babestuta dauden datuak bildu ahal izango ditu (delegatuen sindikatu-afiliazioa, osasuna), hala xedatuta baitago Ordezkaritza-organoak arautzeko, lan-baldintzak zehazteko eta funtzionario publikoek parte hartzeko ekainaren 12ko 9/1987 Legean, bai eta honako arau hauetan ere: Bizkaiko Lurralde Historikoaren PFEZari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Araua; Arabako Lurralde Historikoaren PFEZari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Araua; Gipuzkoako Lurralde Historikoaren PFEZari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Araua; bai eta unean-unean indarrean dauden gainerako zerga-arauak ere.

Aurreikusten diren lagapenak eta transferentziak:

Arlo horretan eskumena duten instituzio eta erakundeei, Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 11. eta 21. artikuluekin bat etorriz. Batez ere, hauek: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala, banku-erakundeak eta langileen kudeaketarekin loturiko beste erakunde batzuk.

Segurtasun-maila: handia.

Organo arduraduna:

Giza Baliabideen Zuzendaritza.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta horien aurka egiteko eskubideaz baliatzeko organo honetara joko da:

Giza Baliabideen Zuzendaritza (Larrauri Mendotxe bidea 18, 48950 Erandio, Bizkaia).

II. eranskinaren fitxategi batzuk aldatzea (II. eranskina: Euskal Herriko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroaren menpeko fitxategiak).

23.– Identifikazio genetikorako datu-basea.

Helburua:

Laginen eta aztarna biologikoak genetikoki identifikatzeko datu-basea, delituak ikertzea, gorpuak identifikatzea eta desagertutako pertsonei buruzko informazioa lortzea helburutzat dituena.

Aurreikusitako erabilerak:

Polizia zientifikoaren jarduerak, ikerketa polizialean erabiltzekoak.

Barneko estatistikak kudeatzea eta txostenak egitea.

Zein pertsona edo gizatalderi buruzko datu pertsonalak bildu nahi diren:

- Ikerketa kriminalen esparruan: susmagarriari, atxilotuari edo inputatuari buruzkoak, 10/2007 Lege Organikoaren 3. artikuluaren 1.a) idatzi-zatian aurreikusitako delituren bat gertatzen bada, eta, horretarako, afektatuaren oniritzia ez da behar.
- Gorpuak, gizakien aztarnak eta desagertutako pertsonak identifikatzeko prozeduretan: datuak eman ziren ikerkuntza egiteko baino ez, eta afektatuen datuak erregistratu eta tratatu ahal dira, bai eta afektatuekin genetikoki loturiko pertsonenak ere, baina, senitartekoen kasuan, beren oniritzia behar da.
- Beste afektatu batzuk edo egindako ikerlanekin eta prozedurekin lotura dutenak, berariaz beren oniritzia eman badute.
- Ikerketa kriminalen eremuan, delitu-tokian eta Polizia Judizialaren lanak eginez zalantzazko laginetatik abiatuta lortutako profil genetikoak.
- Polizia-zerbitzuan sartuta dauden pertsonak edo beste batzuk, informazio horrek soilik balio dezan ikerketa zehatzetan lagin baztertua izateko.

Datu pertsonalak biltzeko prozedura:

Interesatua bera edo beste pertsona fisiko batzuk; polizia-ikerketaren jarduerak eta egindako identifikazio-prozedurak direla-eta; edo segurtasun arloko beste erakunde, indar edo kidego batzuei buruzko datuak jakinaraziz; hori guztia inprimakiak erabiliz, datuen igortze elektronikoaren bidez eta internet bidez, edonolako euskarria duten laborategi-analisien bidez.

Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Datu-base bat, eta datu horiek fitxategi bat osatzen dute, eta fitxategi horren informazioa jarduera-eremuen arabera ager liteke, eta aipatu beharko da ikerketa kriminalak (Prozedura Kriminalaren Legearen eta 10/2007 LOaren babespekoak direnak) direla-eta egindako identifikazio eta profil genetikoari buruzko datuen egitura bereizita dago.

Identifikazio-datuak: NANa/IFZ/Pasaportea, izen-deiturak, posta-helbidea, telefonoa, deskribapena, irudia, ezaugarri fisonomikoak eta antropologikoak, bai eta mota ere (zalantzazkoa, zalantzarik gabea eta esleitua), eta profil genetikoari buruzko datuak, identifikatzeko balio dutenak.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: filiazio-datuak, senitartekoen datuak, jaioteguna, jaioterria, adina, sexua, nazionalitatea.

Arau-hauste penalei buruzko datuak.

Pertsonei buruzko datuak ematen badira lagin-bazterketak eta identifikazio-alderaketak datuak egiteko, identifikazio horretarako behar diren datuak besterik ez dira jasoko. Poliziako langileen kasuan, beraiek parte hartzen duten ikerketetan lagin-bazterketak egiteko, zenbaki profesionala eta profil genetikoaren zenbakia besterik ez da jasoko.

Aurreikusten diren datu-lagapenak eta transferentziak:

Aurreikusitako datu-komunikazioak: Jurisdikzio-organoei, Fiskaltzari, Segurtasuneko Indar eta Kidegoei, Inteligentziako Zentro Nazionalari, bai eta arlo horretan eskumena duten instituzio eta erakundeei ere, honako hauekin bat etorriz: Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 11. eta 21. artikuluak; martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 3. eta 45. artikuluak; Euskadiko segurtasun publikoaren sistema antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legea; DNAtik abiatuta lortutako identifikatzaileei buruzko polizia-datuen oinarria arautzen duen urriaren 8ko 10/2007 Lege Organikoaren 7. artikulua.

Ez dago aurreikusita alderaketak eta lagin-bazterketak egiteko lortutako datuen inolako lagapenik egingo denik.

Datuak nazioartean eskualdatzea: beste herrialde batzuetako agintaritza judizialei, fiskalei eta poliziakoei, Espainiak onartutako nazioarteko hitzarmenetan aurreikusitakoaren arabera, baldin eta hitzarmen horiek indarrean badaude, DNAtik abiatuta lortutako identifikatzaileei buruzko polizia-datuen oinarria arautzen duen urriaren 8ko 10/2007 Lege Organikoaren 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Segurtasun-maila: handia.

Fitxategiaren arduradun den organoa:

Segurtasun Sailburuordetza (Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza-Euskal Herriko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroa).

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta horien aurka egiteko eskubideaz baliatzeko organo honetara joko da:

Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza (Larrauri Mendotxe bidea 18, 48950 Erandio, Bizkaia).

32.– Polizia-intereseko pertsonak.

Helburua:

Prebentzio eta herritarren segurtasunaren arloan koordinazioa erraztea, poliziarentzat interesgarriak diren pertsonak direla eta. Polizien arteko lankidetza erraztea.

Aurreikusitako erabilerak:

Helburuari buruzko atalean aurreikusitakoak.

Zein pertsona edo gizatalderi buruzko datu pertsonalak bildu nahi diren edo derrigorrez eman behar diren:

Poliziarentzat edo epaileentzat interesgarriak diren pertsonenak, bai eta polizia-jardue-rekin loturiko pertsonenak ere.

Desagertu diren pertsonak direla-eta, beren senitartekoei buruzko datuak ager daitezke.

Datu pertsonalak biltzeko prozedura:

Interesatuaren bidez edo bere legezko ordezkariaren bidez, beste administrazio batzuen edo beste polizia-kidego batzuen komunikazioen bidez, edo horretarako zilegitasuna duten pertsonek edo entitateek emandako komunikazioen bidez.

Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak (izena eta deiturak, NAN, eta abar). Helbidea.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak (adina, ezaugarri fisikoak).

Datu profesionalak.

Bereziki babestuta dauden datuak: arraza, desagertutako pertsonen inguruan.

Ibilgailuen identifikazio-datuak.

Dagokion administrazio-izapideari edo izapide judizialari buruzko datuak.

Izan beharreko jokabideari buruzko datuak.

Aurreikusten diren datu-lagapenak eta transferentziak:

Justizia-administrazioari, hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoko poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 14. artikuluan; nazioarteko beste erakunde batzuei eta atzerriko herrialdeei, indarrean dauden hitzarmen eta itunetan (Interpol, Europol, Schengen informazio-sistema, Europar Batasuna, eta abar) ezarritako moduan; segurtasun arloko beste indar eta kidego batzuei, hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoko poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 14. artikuluan, Segurtasun Batzordearen erabakiak aplikatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz; eta arloaren eskumena duten erakunde eta organismoei, Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11. eta 21. artikuluekin bat etorriz.

Segurtasun-maila: handia.

Organo arduraduna:

Segurtasun Sailburuordetza (Euskal Herriko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroa).

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta horien aurka egiteko eskubideaz baliatzeko organo honetara joko da:

Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza (Larrauri Mendotxe bidea 18, 48950 Erandio, Bizkaia).

III. ERANSKINA

AURKIBIDEA

I. eranskina.– Segurtasun Sailaren eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Ikastegia erakunde autonomoaren administrazio fitxategiak.

I.– Segurtasun Sailburuordetzaren menpeko zuzendaritzen erantzukizuna:

A) Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

1.– SOS Deiak.
2.– Urrutiko laguntza.
3.– Larrialdietarako udal-planak.
4.– Industria informaziorako sistemak.
52.– Datu hidrometeorologikoak eskatzea.
53.– Babes zibileko laguntzaileak diren boluntario-elkarteen erregistroa.
54.– Autobabes-planen erregistro orokorra.
57.– Autobabes-planak egiteko gaitutako teknikarien erregistroa.

B) Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

5.– Joko eta ikuskizunak.
6.– Debekuen eta autodebekuen erregistroa.
7.– Jokoa kudeatzeko tresnak.

C) Trafiko Zuzendaritza.

12.– Zehapen-espedienteak.
13.– Gidari-eskolak.
15.– Pertsonak.
19.– Trafikoa kudeatzea.

D) Ertzaintzaren Zuzendaritza – Ikuskaritza eta Administrazio Atala.

48.– Ertzainak laguntzeko kudeaketa.

E) Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

21.– Liburutegia.
22.– Ekinbide.
55.– Herritarrak erregistratzea.
56.– Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzainen Erregistroa.

II.– Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren menpeko zuzendaritzen erantzukizuna.

A) Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritza.

34.– Kontratazio- eta ondare-espedienteak kudeatzea.
24.– Hornitzaileak / Kontratistak.
25.– Jantziak.

B) Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza.

31.– Errekurtsoak/ Erreklamazioak.
8.– Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskunde-kontsultak.
9.– Hauteskundeetako pertsona ospetsuak.

10.– Kargu publikoak.
11.– Komunikabideak.
58.– Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetarako boto irisgarria

C) Giza Baliabideen Zuzendaritza.

26.– Langileen kudeatze integratua – Giza baliabideak.
59.– Langileen kudeatze integratua – Giza baliabideak I.
60.– Langileen kudeatze integratua – Giza baliabideak II.
27.– Medikuak.
28.– Kudeaketa medikoa – Giza Baliabideak.
29.– Epaileen zitazioak.
30.– Abokatu-laguntza.
47.– Lanbide identifikazioa kudeatzea.
49.– Laneko arriskuen prebentzioa.

V.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Ikastegia erakunde autonomoa.

37.– Posta-erregistroa – Ikastegia.
38.– Liburutegia eta dokumentazio-eskariak kudeatzea.
39.– Hautatze-prozesuak.
40.– Prestakuntza akademikoa.
41.– Aholkularitza juridikoa.
42.– Kontratazio-espedienteak kudeatzea.
43.– Langileen kudeatze osoa – Ikastegia.
44.– Kudeatze medikoa – Ikastegia.

II. eranskina.– Euskal Herriko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroaren menpeko fitxategiak.

1.– Aginte eta kontrol Zentroaren jarduerak.
3.– Telefonemen erregistroa.
4.– Poliziaren posta-erregistroa.
5.– Polizia zentroak kudeatzea.
6.– Ekintza baliabideak kudeatzeko tresnak.
7.– Laguntza.
8.– Zentroetara sartzeko baimena.
9.– Sarrerak kontrolatzea.
10.– Segurtasun-enpresak.
11.– Segurtasun-neurriak hartu behar dituzten enpresak.
14.– Adierazpenak eta bilerak.
15.– Herritarren Segurtasunerako Legea (LSC) – Segurtasun pribatua aplikatzea.
16.– LSC zehapen-espedienteak.
17.– Genero-indarkeria.
18.– Ikerlan.
19.– Salaketak.
20.– Argiketak.
21.– Iturrien informazioa.
22.– Komunikazioen kontrola.
23.– Identifikazio genetikorako datu-basea.

24.– Ahotsak ezagutzea.
25.– Zantzuak eta adituen txostenak.
28.– Heriotzak.
29.– Epaileen errekisitoriak eta aginduak.
30.– Polizia-intereseko gauzak.
31.– Polizia-intereseko ibilgailuak.
32.– Polizia-intereseko pertsonak.
33.– Identifikatuen liburua.
34.– Atxilotuen liburua.
35.– Atxilo.
36.– Presoen baimenak.
37.– Barneratuak eta atxilotuak lekuz aldatzea.
38.– Ospitaleratuen zaintzak.
39.– Zigiluak.
40.– Ibilgetutako ibilgailuak.
41.– Argiketarik gabeko trafiko istripua.
42.– Alkoholemia-probak.
43.– Diziplina-prozedurak.
44.– Ikerlan – Ikuskaritza orokorra.
45.– Iturrien informazioa – ikuskaritza orokorra.
46.– Izapideak – Ikuskaritza orokorra.
47.– Bereizgarriak eta lanbide-txartela.
48.– Armen kontrola.
50.– Adin txikikoak erregistratzea.
51.– Bideo-zaintza euskarria.
52.– Komunikazio-lineak grabatzea.
53.– Segurtasun kontrola.
54.– Bideo-zaintza sarea.
55.– Oinetakoen aztarnak.
57.– Herritarren segurtasunerako jardueren erregistroa.
58.– Datuak eta prozedurak kudeatzea.